


Astekaria



elgoi




Deba,
elgoibartarren
udalekua



garajea
ASTIGARRAGA

Oporretara joan
aurretik
**ERREBISATU
GURPILAK!**



San Frantzisko, 53. Tel. 74 01 86. ELGOIBAR

ATXURI


NEKAZAL TURISMOKO ETXEA



1. URTEURRENA

ZURE OPORRAK ETXETIK HURBIL PASATZEKO AUKERARIK EGOKIENA:

- 12 pertsonarentzako lekua
- 6 logela bainugelarekin
- Sukaldea erabiltzeko aukera
- Pentsio osoa edo erdia.
- Mendi bueltak egiteko aukera paregabea.
- Hondartzatik 12 kilometrotara.



☎ 15 04 41

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi, Izaskun Elizburu.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maitte Rementería.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Gure hondartzetan bainatzea galeraziko al dute?

Bitxia bada ere, duela gutxi arte estimazio eskasa izan du kostaldeak bizileku modura. Tradizionalki handik iristen ziren inbasoreak, eta hortaz, kostaldearekiko distantzia prudentziala gorde izanak badu zentzua. Zenbait arrazoiengatik, hala nola, “beraneatzea” eta bainua hartzea -gure artean duela ehun urte inguru hasi zen bainatzeko ohitura- kostaldearekiko estimazioa handitzen joan da.

Deba eta Mutrikuko hondartzekin gauza bera gertatu da. Madrileko burgesia izan zen hondartzetara hurbiltzen hasi zen lehena, boteretsuak imitatu nahian edo. Bilbotarrak eta Zaragozatik etorritakoak, eta Deba Behekoak eta Garaikoak izan ziren ondoren. Gure hondartzen ezaugarrietariko bat zera izan da: askok eta askok estraineko bainua hartu dutela bertan.

Bainatzeko ohitura hedatu eta garraio bideak ugaltu ahala, hondartzak gero eta ezerosoagoak bihurtu dira, Debakoak batez ere. Deba ibaiaren inguruko arroak 60. eta 70. hamarkadetan izan zuten industrializazio bizkorren eraginez, uraren kalitatea kaxkartuz joan da. Arrazoi honengatik 80. hamarkadan, bainua debekatu egin zuten Deba ibaiaren inguruko hondartzetan, bainatzeak izan lezakeen arriskuagatik.

Egia esan, orain arte hondartzek ez dute Deba ibaiko ur kutsatuen kalterik jasan korronte “salbatzaile” batzuei esker.


Uneoro, kutsadura mailaren barruan mantendu da, bainua librea izan da baina itsasoan bainatu ondoren dutxatzea gomendatzen zuten. Saturraraneko hondartzari buruz beste horrenbeste, nahiz eta Zazpi Hondartzen egoera beti hobea izan den.

Etorkizunean, datozen urteotan, zein izango da egoera? Adi egotea komeni zaigun arren, badirudi egoerak ez duela txarrera egingo orain aipatuko ditudan hiru arrazoi hauengatik: batetik, iharduera industrialak behera egin du nabarmen. Gaur egun errekuperazioarako garai aproposa den arren, pentsaezina da 70. hamarkadako maila berreskuratuko dugunik. Bigarrenik, Urumearekin edo Bidasoa ibaiekin konparatuz, administrazioaren aldetik Deba ibaiarekiko bazterkeria nabaria eta diskriminatzailea den arren, azkenean zerbait egingo dutela pentsatu nahi dut, bai eta gure Udalek ere. Azkenik, ingurugiroari buruzko kontzientzia kolektiboa gero eta handiagoa izatea, garrantzitsua izan daiteke.

Historikoki, elikagaiak eman, gure industriarentzako energia eskaini eta komertzioarentzako garraio bide izan den Deba ibaiarekiko begirune eskasa izan dugu bailarako biztanleok. Guzti horren ordainetan, guk bizkarra eman diogu, eta gure etxeotan nahi ez duguna irensteko eta garraiatzeko zabortege bihurtu dugu.

Karmelo Urdangarin

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

“Tazko abuztuan Udalak lehiaketa-oposaketa bidez Udaltzain kargurako bi plaza atera zituen. Hamaika hilabete pasa dira eta oraindik ez dakigu ezer. Zer gertatzen da?”

Udaleko Idazkariarekin egon gara eta aukeraketa martxan dagoela esan digu. “Udaltzaina aukeratu aurretik sarjentua eta kaboa aukeratu ditugu eta horregatik atzeratu da. Euskarako froga pasa dugu eta falta diren biak laster pasako ditugulakoan gaude”.



KEXAK

“Plaza edo parke eder bat ipini zuten Santa Klara auzoan. Baina norbaitek aparkatzea debekatzen zuen seinalea kendu eta kotxeak parkean aparkatzen hasi dira. Beraz, aparkatzea galerazten duen seinalea berriz ipintzeko eskaria luzatu nahi dut eta auzotarrei, berriz, seinalea errespetatu dezatela. Mila esker.”



TXALOAK

Zinezale batek deitu digu Plazako Aire Libreko zine emanaldiak txalotzeko. Halere, bere ustetan, ezin da hiru hilabetetan Herriko Antzokia itxita eduki, batez ere berau zabaltzea hainbeste kostatzen denez.

ESKUTITZAK

Herritar askoren ahota dabilen gaia da. Urte askotan gure seme-alaben irakasle izan diren Enrike eta Jose Luis kaleratu dituzte, irakasle murrizketa ezinbestekoa zela eta.

Bagenekien horrelako zerbait gerta zitekeela, baina ez gertatu den moduan, susmagarria izan baita hain justu bi horiek kaleratzea.

Horren berri izan bezain laster mugitu ginen zenbait guraso bai eta Ikastolako Junta Errektorarekin bilera eskatu ere.

Bildu ginen gurasoen iritziz, horrelako neurriak ezin dira hain arinki hartu, beste bide batzuk probatu gabe. Beti ere, susmorako bideak itxi egin behar dira, irizpide objetiboetara hurbilduz, gure elkar bizitzaren eta Ikastola beraren onerako.

Honako puntu hauek planteatu genituen bilera hartan:

1- Ikastola berak konpon zezala arazoa beste kooperatibetan bezala, ordu eta soldatak banatuz, eta inor kaleratu gabe.

2- Inor kaleratzeak, susmorik sortuko ez zuen “kanpoko erakunde” batek azter zitzala irakasleen perfilak eta eskolaren beharrak, denok ezagutzen dugun hurbileko gatazkak eraginik izan ez zezan horrelako erabakietan.

3- Orain atzera egitea zaila edo ezinezkoa izango balitz, gerora begira behintzat ahalik eta irizpide

objetiboak zehaztea eskatu genuen.

Entzun ziguten, baina ez dago, dirudienez, arazoa bideratzeko borondaterik.

Horixe da, bazterrak nahasteko inolako asmorik gabe, kaleratu nahi duguna. Gure herriko elkar bizitzaren etorkizuna iritzien aniztasunean eta informazioaren gardentasunean oinarritu nahi dugu, injustiziarik inolako biderik eman gabe.

Herritar guztioi eta batipat guregana berri eske etorri zaretan gurasooi, zor genizuen berri hauek ematea.

Eskerrik asko Jose Luis eta Enrike; harro egon zaitezke zuten lanarekin. Gure artean ez ahal da berriz horrelako bidegabekeriarik gertatuko.

Ikastolako 15 guraso

Erratak konpontzen

115. zenbakian, TxikiBARRREN gehigarrian asmari buruzko artikuluan errata bat egin genuen. “Asma arnasa egiteko bideen *malformazio* kronikoari deitzen zaio” jar-tzen zuen tokian, “*malformazio* kronikoa” beharrean “*inflamazio* kronikoa” behar zuen jarri.

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Maite Vallejo** lagatakoa da. Astelehenean, uztailak 10, bota zuen euritearekin herritar askok behin eta berriro errekarantz begiratu zuen, ura kalera aterako zen beldurrez edo. Zenbait tokitan estoldak ireki behar izan zituzten,

ura oztoporik gabe joan zedin baina ez zen ezer larririk gertatu. Halere, trumoi, tximista eta euri zaparrada haiek ikusita, aproposa iruditu zaigu **1953. urtean** izan ziren uholdeetako erretratua argitaratzea.

Erretratua zaharra bada ere, zoritxarrez hain aspal-dikoak ez diren oroitzapenak ekarriko dizkio bati baino gehiagori.



MALAPE TABERNA

Animatu zaitetz!
MADALENA JAIK



Ekainaren 15ean eman zitzaion ofizialki hasiera uda sasoiari. Data horretatik eta irailaren 15era bitartean, Euskal Herriko hondartzak beraien zerbitzu guztiak eskainiko dituzte; Gurutze Gorria edo DYA, tabernak, izozkiak erosteko txiringitoak, karpak... Elgoibar ez dago kostan, baina itsasoa 12 km.ra dauka. Gertutasunak bultzatuta, beraz, herritar asko eta asko, eguzkia atera bezain pronto, bainujantzia eta toaila hartu eta Debara joaten da. Epeletan belztu eta ur gazitan bainuren bat edo beste hartzeko ilusioz.


Barnealdetik kostaldera

1294 ko ekainaren 24an, San Juan egunez, Sancho IV.ak "Carta Puebla" eman zien Monrealeko biztanleei. Haiek, arrantza praktikatzeko kostaldera gehiago hurbildu behar zirela ikusiz, Deba herria sortu zuten ofizialki. Gaur egun, 5.000 biztanle inguru ditu Debak. Uda aldera, ordea, 8.000 izatera iristen da, kanpotar askoren topagunea baita. Tradizionalki turismo herria izan bada Deba, gainbehera ere ezagutu zuen, nahiz eta azken urteotan turismoa berreskuratzeko

apustua egiten ari den. Gaur egun hotel bakarra dago, Miramar, eta hau gainezka egoten da uda osoan zehar. Horrez gain, nekazalturismoaren bultzada dela eta, sei baserritan ere bada lo egiteko aukerarik. Eibartarrak, Madril aldekoak edota katalanak ezezik, elgoibartar dextentek ere badu bere bigarren etxebizitza Deban. Hauek, ekainetik irailera bitartean Deban pasatzen dute oporraldia. Beste asko, eguraldiak uzten duen guztietan bertara joaten da. Horretarako, Eusko Trenbideak-ek tren bereziak jartzen ditu, autobusik ere izaten da, eta asteburuetan batez ere, errepideetan izugarritzko kotxe iladak sortzen dira, goizaldera kostarantz eta arratsalde partera, etxera bueltan.

Herria ezagutzen

Deba da Elgoibartik gertuen dagoen hondartza. Debako Udaltzeko kultur teknikariek, Jasek eta Raimundok, azaldu digutenez, "jendeak hondartza ezagutzen du, eta hori ondo dago. Baina herria ezezaguna da askorentzat eta hori da bultzatu nahi duguna. Debak asko baitauka erakusteko eta eskaintzeko, herrian baita ere". Astelehenetik ostiralera bertara joaten dira herritar gehienak, nahiz eta azken urteotan



■ ■ Elgoibartar askok Debako hondartza aukeratzen du gertuen baitago.

	Hondartzak	Kanping-ak	Jatetxeak	Nekazalturismoa	Aparkalekuak
DEBA	Deba, Arnedillo eta Sakoneta	Itziar, Itxaspe	21	6 baserri	600 hondartzan, doan, eta beste 100 OTArekin
MUTRIKU	Hondarbeltz, Mutriku, Saturrarán eta 4 txiki	Aitzeta, Galdona, Mutriku, Santa Elena, Saturrarán	7	1	Saturraránen 500 (200/300 pta.), Mutriku 200 (prezio berdinean) eta, horiez gain, beste 700 doan.

Saturraranera joateko joera hedatu den, batez ere gazteen artean. Aurtun, Gurutze Gorriak, Debako hondartzan txoko bat eskuratu du eta bertan haurtzaindegia jarri, Txiki Guai. Igerileku txikiak, txirristadak, jolas ezberdinak... denetik dute haurrek han ibiltzeko. Hiru edo lau begirale izaten dira umeekin eta ordu bakoitzeko 100 pta. ordaindu behar da. Honela, gurasoek lasai-lasai egoteko aukera dute.

Era batera edo bestera, bainujantzia soinean, toaila, krema eta artatekoa boltsan eta udarak sortzen duen bizi pozarekin, kostaldea izan ohi da gehienek aukeratzen duten plana.



■ ■ Txiki Guai-n txikienek makina bat jolasez gozatzeko aukera dute.

Autobusak

10 urte baino gehiago pasa dira lehen aldiz Debara joateko autobusak antolatuta zirenetik. Trena gainezka joaten zela eta, gainera, ordutegia onegia ez zela kontuan hartuta, uztailean zehar, astegunetan Debara joango zen autobusa antolatzea erabaki zuen emakume talde batek. Aurtun autobus bat bete da eta egunero, eguraldi ona edo txarra egon, eguerdiko 2,30etan hondartzara abiatzen da. Arratsaldea eguzkia hartzen tunbona gainean etzanda, pasiatzen, bainatzen, karta jokuan, kafetxo bat hartzen edo lagunartean hitzegiten eman eta gero, arratsaldeko 7etan Elgoibarrera buelta. 4.500 pta.ren truke ez da, ez, planik txarrena oporretaz gozatzeko.

ELIAS OLALDE Debako alkatea

"Datorren urtean Debako ura garbia izango da"

- **Proiektu berri batean sartuta zaudete.**

- Ibaiadarrari dagoen proiektua da, Mutriku eta Deba daudelarik sartuta. Komunikabideak, ingurugiroa, hondartzak, zerbitzuak eta aisialdirako zein turismoari begira egin daitezkeen gauzak aztertu dira. Hasiera batean, ordenazioa baino ez da egin. Proiektuak egin aurretik, lurra izendatu behar da, kalifikatu egin behar da. Legearen arabera zehaztu behar da etorkizunean zer egin daitezkeen toki kon-

ketu bakoitzean.

- **Eta zer da etorkizunean egin nahi dena?**

- Beno, gauza asko daude pentsatuta, horien artean kirol-portu bat. Dena dela, oraindik ere ikusgai dago noiz izango den posible egitea, eta nolakoa izango den. Inbertsio pribatua erakarri behar da, gauza asko egin baitaiteke Deban.

- **Hondartza handitzeko asmoa duzue, ez?**

- Bai, hala da. Hiru urteren epean espero dugu Debako hondartza handi-



tzea. Gutxi gora-behera Donostiako Gros hondartzan egin den antzeko zerbitzu egin nahi da. Hartara, hondar gehiago egongo litzateke, hondartza handiagoa izango genuke, jende gehiagorentzako tokia egongo litzatekeelarik.


Errepide ondoko paseoa ere luzatzeko asmoa dugu.

- **Eta urari dagokionean?**

- Datorren urtean bertan, Deban ere itsasoko ura erabat garbia izango da, kutsadura izpirik gabekoa. Orain ibaiak zikin asko ekartzen du, baina proiektu bat dago eta horren arabera, alde bategatik zikinak ibaiaren bidetik desbiatuko dira eta, bestetik, depuradora bat jarriko da.

- **Debari jantzi berriak jarri behar dizkiozue, beraz.**

- Hori da. Herriarentzat onuragarria da proiektu berriak egitea, batez ere hain garrantzitsuak direnean. Gainera horrek, logikoki, turismoa erakarriko du.



ASTE HONETAN

Futbol eroa

rratian, telebistan, egunkarietan, kalean... Alde guztietan Joseba Etxeberria elkarrizketagai nagusi. Batzuk haserre, beste batzuk pozik, batzuentzat Athletic-ak ordaindu duena astakeria, beste batzuentzat inbertsioa...

Ikuspuntu ezberdinak aztertuta, gertatutakoak badu bere "logika": Athletic-ak darrai bere filosofiarenkin: euskal jokalariz osatutako taldea edukitzea, alegia; eta horrek bere prezioa dauka (kasu honetan prezio garestia). Errealak ez zuen inondik inora Josebari gainontzeko gazteei baino diru gehiago ordaintzerik nahi, ondorioz ezin izan dute jokalaria taldean mantendu.

Jokalariaren aitak, aldiz, bere semearen etorkizuna ziurtatu nahi izan du eta askoz diru gehiago eskaintzen zion beste euskal talde batera joan da.

Kasu hauetan beti aipatu izaten da taldearen koloreekiko maitasuna. Nik uste dut maitasun hori badela, baina Josebaren kasuan erabilitako milioi kopuruak edonor itsutuko luke, eta itsu batek ez ditu koloreak bereizten.

Kontu honetan guztian bada haserrearazi nauen gauza bat. "El Diario

Vasco" egunkariak jokalariaren aitaren aurka egin duen kanpaina lotsagarria iruditzen zait. Benetako gaizkile bat bezala agerrarazi nahi izan dute. Hain gogor kritikatu dutenek bere egoeran egon izan balira, zer egingo zuketena? Oso erraza da inoren diruaz hitz egitea. Agian, inbidia hutsa besterik ez da izango.

Bukatzeko, ZORIONAK Josebari eta ZORTE ON!!



AITOR GALARRAGA



MEKANOSA
Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

IRIONDO Taberna

Ondo pasa Maalako jaiak!

Pedro Muguruza 2. Elgoibar

Zer deritzozu Etxeberria Athletic-era joateari buruz?



JOSEBA ELUSTONDO
16 urte, ikaslea

Ondo, ze gaztia da eta oso ona. Realian jokatzea gustauko jatan, Realekua naitzelako, baina milioak eskaintzen badizkie... normala da.



BELEN ELORZA
46 urte, dendaria

Nere semea balitz berdina egingo nukeen. Gauza bat zaletua izatea da baina bere azalean jarrita, gauza bera egingo nuke.




ENEKO ALTZIBAR
21 urte, ikaslea

Beragatik pozten naiz baina ez jata ondo iruditzen nola eruan daben rollua. Kluben artian ez dabe negoziu, azpijokua egon da.



MONTSE SANCHEZ
26 urte, langabetua

Alde batetik logikoa iruditzen zait, bakoitzak bereari begiratu behar baitio, baina moralki, jokalaria moduan aukera eman dion klubarekin horrela gertzea...



JOSE ARRIETA
72 urte, jubilatua


Ondo beixantzen jata ein dabana, Realeko fitxian eta klausulian artian ez zauan konbinaziorik. Errealekua bai, baina ez naiz oso forofua.



MARI CRUZ BELAUSTEGI
30 urte, ofimatika tek.

Ondo egin du. Edozein egunetan lesionatu egin daiteke eta ezer gabe gertatu. "Urrezko bota" izanik eta jubenila izan arren, gora heltzea merezita dauka.

ELGOIBAR INMOBILIARIA S.A.



ETXEBIZITZAK San Roke Poligonoan

1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak

8.224.000 pta.tik gora

INFORMAZIOA: Leku Ederreko lokaletan. ☎ 74 40 34

■ Pello Ezkurak irabazi du kartel lehiaketa

Elgoibarko Udalak antolatzen duen jai egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketan Pello Ezkurra elgoibartarraren lana izan da irabazlea. Kolore anitzak eta biziak ditu Pelloren kartelak eta 40.000 pta.ko saria jasoko du aukeratua izanagatik. Aipamen bereziaren 10.000 pta.ko saria Aitor Lodosoren kartelak merezi izan du. Epaimahaiak zalantza handiak izan zituen bi elgoibartarren lanen artean aukeratzekoan, azken unean Pello Ezkuraren kartelari lehen saria ematea erabaki zutelarik.

■ Udaltzaingoaren oharra kotxe gidarientzat

Udaltzaingoak, herriko zenbait kaletan kotxea aparkatzea ordu erdiko denborara mugatua dagoela gogorarazi nahi du. Norbaitek denbora luzeagoz aparkatu nahi badu, badira beste zenbait aparkaleku, hala nola, Gabilondokoa edo Santa Ana kalekoa. Era honetara, herri barruan denbora motzez egon behar dutenek aukera gehiago dute aparkalekua lortzeko. Iaz, mugatutako tokietan ordu erdi baino gehiagoz aparkatuta egoteagatik 469 isun jarri ziren eta aurten, dagoeneko, 370 jarri dira. Hona hemen zein tokitan dauden aparkaleku mugatuak: Santa Ana kalean, Errosario kalean, San Bartolome kalean, San Franziskon eta Madalan.

■ Gestorako txoznan lan egiteko asanblada

San Bartolome jaietan urtero bezala Gestorek jartzen duten txoznetan lan egiteko asanblada antolatu da datorren ostegunerako, hilak 20, Kimetz elkartearen. Gestorek dei egiten diete herriko koadrila guztiei asanbladara ager daitezen. Bilera arratsaldeko 8etan hasiko da.



Benin eta Errusiako taldeak izango dira Folklore Jaialdian

Hil honen 27an burutuko den IX. Nazioarteko Folklore Jaialdian Benin eta Errusiako Kabardino Balkaria errepublikako dantzariak hartuko dute parte, Haritz Euskal Dantzari taldekoez gain. Afrikako tribu zaharren misterio, gerrako dantza eta errituen adierazpide diren dantzak eskainiko dituzte "Kini-Kini" izeneko ballet folklorikoko dantzariak. Errusiar errepublikako "Kabardinka" taldea

bertako aberastasunaren eta edertasunaren erakusle da. Jaialdirako sarrerak aurrez erosi ahal izango dira Txankakuako dendetan. Hilaren 24tik 26ra bitartean sarrerak eskuratzen dituztenen artean 10.000 pta.ko bost sari zozketatuko ditu Txankakuak jaialdia burutuko den egunean bertan. Sarrerak 500 pta.n lortu ahal izango dira eta 14 urtetik beherakoek edo Gazte txartela dutenek 200 pta.gatik.



Udaldian 95 kanpaina martxan! Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak udara begira antolatu duen Udaldian 95 kanpainak estimazio handia izan du partaidetza aldetik. Eskolaurreko eta OHOKo lehen bost mailetakoko 150 haur izan dira izena eman dutenak, 74 eskolaurrekoak eta 76 OHOKoak izan direlarik. Hamar eguneko iraupena du eta egunero hiru orduz jarduten dute begiraleen esanetara. Jolasak, kantuak, eskulanak, antzerkia, irteerak eta beste hamaika gauza izaten dituzte uztailleko goiz parteak lagunartean ondo baino hobeto pasatzeko.



Lutxi Arregi elgoibartar intsumitua gartzelaratu egin dute

Lutxi Arregi, 26 urteko intsumitu elgoibartarra Martuteneko gartzelan dago atzodanik, hilak 13, osteguna. Lutxi eta beste sei intsumitu Donostiako Justizia Jauregian beren burua katez lotu zuten atxilotuak izateko asmoarekin. Ertzantzak zazpi intsumituen kateak apurtu zituen beraiek atxilotzeko agindurik ez zutela esanaz. Hortaz, Martuteneko gartzelara abiatu eta Justizia Jauregian egindako gauza bera egin zuten, beren buruak kate-

atu. Ertzantzak berriro ere kateak eten zituen intsumituak atxilotu gabe. Azkenean, Lutxik eta beste hiru intsumituk "ingreso voluntario" deritzon moduaren bidez Martutenen gartzelaratuak izatea erabaki zuten. Intsumitu hauek "busca y captura" delako egoeran zeuden eta 15 egun bete beharko dituzte gartzelan. Ondoren, 3. gradua lortuz gero, lotara bakarrik joan beharko dute Martutenera kondena bete bitartean.

■ INEMeko ikastaroak

INEMek hainbat ikastaro antolatu ditu datozen hilabeteotan burutzeko asmoz. Irailean, urrian eta azaroan izango lirateke ikastaroak, Gasteizen, Laudion, Legution eta Zornotzako INEMeko zentruetan. Ikastaroen artean, igeltsaritza, pintura, iturgintza, ordenagailu diseinua, autoen karrozeria, txapista, autoedizioa, bulegoko informatika, CNC fresadore programatzailea, administrazio laguntzailea, gestiorako informatika etab. daude. Informazioa eskuratzeko Ermuko 17 37 20 telefonora, Gasteizeko 945/ 22 74 00 zenbakira edo Durangoko 94/ 620 04 49ra deitu.

■ 117 ikaslek gainditu du aurtien selektibitatea

Herriko Institutuko ikasleek egin berri dituzten Unibertsitaterako hauta-froga edo selektibitateko azterketetan emaitza ezin hobekak eskuratu dituzte. UBI egin duten 117 ikasle aurkeztu ziren eta denek gainditu dute azterketa, eta nota onarekin gainera. Batxilergo Teknikoko eta Administratiboko 22 ikasle 18 izan dira gainditu dutenak.

Asegura ezazu zure zahartzaroa

HISPANIA ZURICH

C. Romera. Artekaile z/g. ☎ 74 07 52

Hilean 6.000 pta. ordainduz

Adina	IRAUPENA		
	20 urte	25 urte	30 urte
35	4.965.963	8.710.671	14.655.252
40	4.994.462	8.807.680	-
45	5.036.257	-	-

Hilean 12.000 pta. ordainduz

Adina	IRAUPENA		
	20 urte	25 urte	30 urte
35	9.939.926	17.421.342	29.310.504
40	9.988.924	17.615.360	-
45	10.072.514	-	-

Zer geratuko zait jubilatzen naizenean? Zeuk nahi duzuna. Guk formula eskaintzen dizugu.

Asier Serrano:

“Mendiak ez ditugu batere zaintzen”

Beste hainbat lagun bezala, naturaren inguruan ari da lanean Urubi Natur Taldea. Soraluze, Elgoibar eta Zumaiako gazte talde batek osatzen du elkarte hau. Haur, gazte eta nagusiekin antolatzen

dituzte irteerak naturaren gairik garrantzitsuenak azaltzeko asmoz. Beraiek ere irteera ugari egin dituzte beraien kabuz eta gutxi gora-behera nolakoak izan diren kontatu digu Asierrek.

- Nolatan “Urubi Natur Taldea”?

- Istorioa oso bitxia izan zen. Urubia gaueko mozoloaren antzeko animalia bat da. Ni San Roke auzoan bizi naiz eta egun batean Urubi bat jarri zen gure ondoko leiho batean bizitzen. Gau eta egun osoa zarataka ematen zuen gu zorabiatu arte. Taldeari izena jarri behar zeniola eta, istorioaz gogoratu eta Urubi izena jartzea pentsatu genuen.

- Zer da zuretzat ekologia?

- Ekologia ez da gure arbasoek uzten diguten oinordekotza, gure seme-alabei uzten diegun legatu bat baizik, guk zaindu behar duguna gure ondorengoek ere izan dezaten.

- Umeen artean ekologiarekiko sentsibilizazioa sortzea erreza al da?

- Gurasoek ekologiari buruz duten iritzia, edo berari emandako garrantziaren arabera ikasiko dute beraien seme-alabek ekologia errespetatzen.

- Mendia, kirola ala plazerra al da?

- Mendia, ikerketa moduan. Mendira joatea-



“Gure natura gehiago eta hobeto zaintzen ikasi behar dugu”

ren gauzarik zoragarriena prismatikoak hartzea eta lorak, animaliak, landareak,... aztertzea da.

- Gure mendiak garbi mantentzen al ditugu?

- Ez. Badago baserri eta hirietako jende asko, garbigailuak edo umeen kotxeak... mendian uzten dituztenak hauek zahartzen edo izorratzen direnean. Bestalde, badaude etxe gutzia gainean dara-

matela mendira joaten diren "txomingeroak", txanpain botilak etab. bertan, mendian uzten dituztelarik. Diputazioak zerbait gehiago egin beharko luke.

- Gaur egungo haurrek mendia eta naturarekiko zaletasunik ba al dute?

- Haurrek berez ez dute zaletasunik. Etxekoak edo lagunak naturaren aldeko elkarte batean sar-

tuta badaude errazagoa da beraiek ere zaletzea.

- Zer gaitzetsi edo zer txalotuko zenuke mendiari buruz?

- Nahiz eta ikerkuntza egitera joan ez, jende asko mendiak garbi mantentzeaz arduratzen dela txalotuko nuke. Gehienetan jende horri natura asko gustatzen zaio. Gertatzen dena da jendea oso materialista dela.

- Pazientzia handia eduki behar al da lan honetan?

- Kristorena. Talde askorekin egiten ditugu irteerak eta jende asko ezagutu izan dugu, bartzuetan haur zintzoak tokatzen zaizkigu eta besteetan, beno, hobe ez esatea.

- Zein da zure gomendioa gaur egungo gazteentzat?

- Badakit ez dagoela batere ondo propaganda egitea baina gure taldean edo antzeko besteren batean sartuz gero asko eskertuko genuke. Eta ez hori bakarrik, oso mundu polita da eta gazteek ere ziur asko eskertuko luketela.

KOLDO GALDONA

ZcjcttcmbERRI

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 14. GEHIGARRIA



Joan den ekainaren 19an Gipuzkoako Jubilatuen eta Pentsionisten Elkarteak antolatutako mahaiko jokuen finalak jokatu ziren Elgoibarko Zaharren Biltokian. Bertan, Deba Behea eta Urola aldeko finalistak izan ziren. Hona hemen irabazle ateratu zirenak: musean Azkoitiko ordezkariak irabazi zuen, tutean Oriokoak, Seikoetan eta puntuan Debakoak, igelean eta dominoan Eibarko Ipuruatik etorritakoak, briscan, berriz, Elgetako ordezkaria nagusitu zen eta xakean, billarrean eta musean zarautz. Finalen ostean hurreratu ziren guztiek mokadu bat egiteko aukera izan zuten, argazkian ikusten den bezala.

MOTZAK

Santanderrera eta Bizkaiara irteerak

Zaharren Biltokiak bi irteera antolatu ditu uztailaren 21erako. Horietako bat Santanderrera izango da eta goizeko 8,15etan aterako da autobusa Plaza Handitik. Irteera honen barruan ez da bazkaririk egongo. Bigarren irteeran, berriz, Bizkaiari bira emango zaio eta, besteak beste, Amorebieta, Izarza, Leioa, Barrika, Plentzia, Gorka, Bermeo, Gemika, Lekeitio eta Ondarroa bisitatuko dira. Bazkaria Bermeon izango da. Izena emateko Jubilatuen Biltokira jo behar da goizeko 10etatik 12etara bitartean.

Alzheimerra duten gaisoentzat eguneko zentrua Donostian

Argixka, Alzheimer gaisotasuna duten familiei laguntza emateko programa da, Caritas-ek eta AFAGIk (Alzheimer gaisoa duten familia gipuzkoarren elkarteak) antolatua. Proiektu honekin familiak hilean bi asteburuko atsedenaldira izan dezake. Horretarako, Donostiako Egunko Zentroa egokitu da. Ordutegiari dagokionean, larunbat eta igandetan goizeko 10etatik arratsaldeko 6ak arte. Baldintzen artean, besteak beste, gaisoak erroberadun aulkirik gabe ibiltzeko gai izan behar du eta medikazioa markatua. Egunko Zentruan sendikoei informazioa eta aholkua eskaintzen zaizkie, gaisoari bazkaria eta medikazioa eman eta garbitasuna egin zein eguneroko ekintzetarako laguntza eskaini ere bai. Informazio gehiago nahi duenak Udaletxeko Ongizate sailera jo dezake.

JUANA ARRIETA ETXABE

"Nere boltsan beti dao pintzelak"

73 urte ditu. Elgoibartarra da. Gurasoengandik jasotako dendan egiten du lan. Baina horretaz gain, badu bestelako afiziorik ere, pintura, alegia. Umetatik gustatzen zaio margotzea eta orain urte batzuk, gaztetan hasitako zaletasunari berriz ere ekin zion. Gaur egun, jo eta ke aritzen da arratsaldero hiruzpalau orduz. Margotzea delako benetan erlaxatzen duena.

- Bernardo Ezenarrokekin hasi omen zinen margotzen txikitari.

- Bai, Plaza txikixan ibiltzen nitzan, 'pinturas de agua' deitzen dianekin margotzen. Oraindik ere orduko koadruak gordeta dazkat.

- Zure estiloa al daukazu?

- Ez dakit nere estilua dan. Nik ez dot hartu teknirik, libre lagatzen die pintatzen, urtetzen jatan bezela. Igual bat edo batek esaten dizu zeozer beste modu batera hobeto dauala eta zuk kontuan hartzen dozu, baina ostantzian zure kontura pintatzen lagatzen dizue. Eta hori inportantia da.

- Zein motako koadroak egiten dituzu?

- Denetik, paisajiak, bodegoiak, lorak...

- Gutxi gustatzen jatana pertsonak margotzia da, zailena dalako.

- Enkarguak jasotzen al dituzu?

- Ez, normalian ez. Batzuetan eskatu izan die zeozer eitxeko eta ein izan dot baina... Saldu ez dot itxen ze alde batetik inork ez dau erosten eta salteketan oso merke saldu bihar da.



Hori baino lehen nahixao dot nik neuk erregalo bezela ematia, gustorao geratzen naiz.

- Sekula ez al zara paisaiak margotzera kanpora atera?

- Udaran bakarrik. Nere boltsan beti eramaten ditxut pintzelak eta kanpora noanian akuarelak. Behin Izabara jun ginan eta lamina zuri baten refugio bat marraztu naban. Tabernako neskia noizian behin begiratzera etortzen zan eta azkenengo egunian marrazkixa erregalau nion. Ilusio handixa ein zion!

- Zein kolore erabiltzen dituzu?

- Bizixak, askotan biziegixak. Normalian dian baino kolore argixauak erabiltzen ditxut, ez dakit zeatik.

- Erakusketarik egin izan al duzu?

- Egurren, talde bezela ein izan dianian bai, baina nik bakarrik ez. Oin hasi gera dendako eskaparatian jartzen eta jendia ikustera geratzen da eta asko sartzen dia ia nik pintau ditxuten galdetzen.

- Askotan utzi al duzu zerbait

“
Nere koadruetan
koloriak errealidadian
baino bizixauak eitxen
ditxut

”



amaitu gabe.

- Sekula, sekula ere ez. Haseran zeozer oso ondo urtetzen ez bajata ere, konpontzen saiatzen naiz eta beti amaitzen ditxut eta oso gustora geratzen naiz.

- Zenbat denbora behar duzu amaitzeko?

- Nahiko azkar eitxen ditxut baina, hori bai, ni gustura egon arte ez dao amaitxuta. Batzutan nerekin pintatzen dabenak esaten die amaitxuta dauala, baina ni ez banao konforme jarraibx eitxen dot. Gustora egon arte ez dao amaitxuta kuadrua.

- Ez al duzu inoiz autorretraturik egin?

- Nik ez, baina behin pintatzen nauala, ni konturatu gabe nere onduan beste kuadro bat pintatzen zaban batek nere erretratua ein zaban. Amaitxu zabanian erakutsi eta erregalau ein zian. Etxian dakat enmarkata.

- Nola sinatzen dituzu koadroak?

- Izena, Juana, eta fetxia beti ipintzen dot. Urtietara kuadro hori noiz ein naban jakitzeko.

- Pintura kenduko balizue?

- Ez, hori ez. Nahixao dot edozein bazkari edo beste edozer kentzia pinturia baino. Egunero jutten naiz eta lau ordu pasatzen ditxut pintatzen. Egueko gauzarik onena da, relanjantiena.

Uda eta elikadura

Uda iritsi da. Garai honetan elikatzeko ohiturak aldatu egiten dira, edo jateko era behintzat aldatu egiten dugu, beroa dela eta neguan ez bezalako gauzek erakartzen gaituzte eta. Gainera, urtaro honetan barazki eta fruta bereziak daude aukeran eta horiek ematen dituzten bitaminak aprobetxatu behar ditugu.



■ Galera berreskuratzeko, egunean bi litro ur edo zumoak edatea komeni da.

Eguna ezin hobeto hasteko honako gosaria hartzea aholkatzen da: kafea, esnea, zerealak eta fruta. Gaur egun, askotan entzuten dira A eta C bitaminek izugarriko garrantzia dutela. A bitamina azalaren-tzat oso ona da bai eta zenbait tumoreren prebentziorako ere. Gorputzak nahikoa du egunero bi azenario bitamina horren beharra asetzeko edota letxuga, bainak, espinakak edo eskarola jatea. C bitamina gazpatxoak, tomateek eta piparrek dute eta oso ona da udazkeneko katarroi aurre egiteko.

Uda, garai aproposa da barazkiak gordinik jateko, honela, bitaminak eta ahalmen nutritiboak bere osotasunean mantentzen dituztelarik. Entsaladak, ohiko osagaiez gain, gaztaz, oilaskoz, yogurrez, sagarrez edota pomeloz egin ditzakegu bai eta legunbrez edota pastaz ere.

Haragia eta arraina beharrezkoak dira elikaduran. Proteinek zelulen berregitea eta antigorputzen sorrera ahalbidetzen dute eta burdinak anemia prebenitzen du bai eta ilearen erorketa edo hatzazkalak apurtzea ere. Ahal den neurrian txerrikiak eta bildotsa ez dira jan behar, koipe asko baitute eta gorputzak behar baino kaloria gehiago eman dezakete eta. Arrainari dagokienean, urdina bereziki ona da gorputzarentzat, arterioesklerosiaren eta estresaren aurka

ezin hobea. Kontu handia izan behar da izoztuekin. Erosi eta berehala izozkailuan sartzea komeni da eta ahal bada egunean bertan jatea. Egun batzutara jan behar denean, izozkailuan gorde eta bestela frigorifikoan uzten da deskonjelatzen. Sekula ez izoztu deskonjelatu eta gero.

Udaran fibra jatea komeni da: zerealak, ogi integrala, fruta eta berdura. Honek komunera joatea errazten du. Azala leuna eta hidratatua mantentzeko, beroaren ondorioz izerditan bota dugun uraren galera berreskuratzeko, egunean bi litro ur edo zumoak edatea komeni da.

Ez da ahaztu behar udan sarri ematen direla intoxikazioak, batez ere salmonellak sorturikoak. Germen hauek arraultzetan, natan, esnean, oilaskoaren okelan eta mariskoetan aurkitzen dira. Salmonellaren aurkako metodarik onena janaria egostea da, baina batzutan tortila eta gutxi egindako okelatan irau dezakete germenek. Mahonesarekin kontu handia izan behar da bai eta zenbait helaturekin ere. Salmonellak sortutako intoxikazioaren sintomak behearkoa, sabeleko mina, sukarra, botagurea eta deshidratazioa dira. Sintoma hauek igartzen duen edonork medikuarengana jo behar du berehala.

Elikadurak sor ditzakeen infekzioak nola ekidin

- Opor garaian edateko ura ona dela ziur ez egonez gero 10 minutuz egosi behar da.
- Hortzak ere ur garbiz garbitu behar dira.
- Barazkiak egosita jan behar dira edota lejia tanta batez garbituta.
- Fruta garbia eta azala kenduta jan.
- Okela ondo eginda jan.
- Tortilak ondo eginda.
- Ez da komeni izoztuak erostea saltzaile anbulanteei.
- Ez jan etxean eginiko mahonesarik.
- Higiene on baterako beharrezko baldintzak betetzen dituen jatetxeetan jan.

SAUNA ona da nagusientzat

Sauna hitzak egurrezko e-txetxo bat ekartzen digu burura. Harriz betetako la-be txiki batek berotu eta gainera ura botaz, lurruna sortu eta e-txetxo berotzen du. Sauna bat hartzea gorputza bizpahiru aldiz hoztu eta berotzeari dei-tzen zaio. Sauna azalarentzat oso onuragarria da, poroak garbitzen ditu eta zikinkeriak kentzen, zelulak eraberritzen ditu, infezioen aurkako defen-tsak areagotzen ditu, bihotzarentzat ariketa oso ona da bai eta giharrentzat eta buruarentzat ere. Odolaren zirkulazioa biziagotzen du eta gorputzaren temperatura igotzen. Hori dela eta, zenbait min arindu ditzake eta ariketa fisikoak ematen dituen zenbait onura lor daitezke muskulorik mugitu gabe. Halere, garrantzitsuena, lasaitu eta erlaxatu egiten duela da.

Noizean behin saunara joatea komenigarria da nagusientzat, beti ere osasun alde-tik eragozpenik ez badute, hala nola, sukarra, gripea, gaisotasun kutsakorrak, parkinson, bihotzeko edo biriketako gaisotasun larriak, infartoren bat

eduki izana, hipertentsioa, arterioesklerosia... Halere, Finlandian egin diren ikerketen arabera, ez da inolako kontra-esanik ikusi adinarean eta saunaren artean. Alderantziz, zenbait kasutan onuragarria dela esan daiteke. Baina saunara joan aurretik beharrezkoa da lehenbizi medikuarengana joan eta txeko bat egitea. Pertsona bat lehen aldiz joaten denean saunara, 10 minutu baino gehiagoz barruan ez egotea komeni da. Era berean, bankurrik bajuenean eseritzen bada hobe, temperatura bajuagoa izaten da eta. Saunatik irten aurretik, pare bat minutuz eserita egotea aholkatzen da, zorabioak ekiditeko. Era berean, saunara joan aurretik edo bertan egoterakoan ez da ez alkoholik edan behar, ez ariketa fisikorik egin behar, ez eta sexurrik praktikatu behar eta ur hozta kontu handiz erabili behar da. Hipertentsoen kasuan ez da ur hizozturik erabili behar. Astean pare bat aldiz saunara joatea edozeinek esker-tzen du, osasungarria baita, benetan.



TEODOSIA IRIONDO

ARMONIA

OSAGAIK:

- Ardo goxoa
- Bizkotxoak
- Arraultzak
- Azukrea.

PRESTAKUNTZA:

Plater handi batera ardo goxoa botatzen da eta gainera bizkotxoak jartzen dira, ardoa zurrupatu arte. Bitartean arraultzak hartu eta zuringoa eta gorringoa banatu egiten dira. Zuringoeri azukrea botatzen zaie, bolatu bada hobe, eta harrotu egiten dira elur puntura iritsi arte. Lortutako merengea bizkotxoaren gainera botatzen da eta gorringoak azukre piskatekin irabiatzen dira. Gorringoekin lortutako likidoa merengearen gainera botatzen da marrazkiak eginez. Tarta prest dago jateko. Nahi duenak bere gustura adornatu dezake.

Sonia Arriola

Ikus optikakoa

● Askok jendeari begiratzen dion lehenengo gauza begiak omen dira...

▶ Nik ere, begiak eta antiojuak. Zapatariak zapateri eta nik...

● Begizkorik bota dizunik ezagutzen al duzu?

▶ Halako gazetan ez dot sinisten.

● Betaurrekoak ala lentilak?

▶ Betaurrekuak, baina gabian irtetzeko lentilak.

● Koloretako lentilarik jarriko al zenuke?

▶ Bai, zergatik ez?

● Nolakoak? ▶ Urdinak, ipintzekotan igartzeko.

● Betaurrekoak borobilak, laukiak ala puntadunak?

▶ Arpeixan arabera, neuretzat borobilak.

● Bistarentzako beira kolorerik egokiena?

▶ Hipermetropiantzako berdiak edo grisak. Miopiantzako, marroiak.

● Eta mundua begiratzeko?

▶ Transparentia izango litzateke danentzat onena.

● Gauzak begiratzen den beiraren arabekoak al dira?

▶ Bai, ez dao dudarik.

● Ba omen daude miopia kentzeko ariketak...

▶ Ondo etortzen dia, baina miopia ez da zuzentzen.

● Begietan X izpiak izanez gero, nor espiatuko zenuke?

▶ Ez jatan gustauko, responsabilidade haundixa izango litzake.

● Ikusi nahi ez duena baino itsuagorik ez dagoela diote...

▶ Bai. Mundu guztixak gehixo begiratu biharko luke ingurura.

● Nor jango zenuke begiekin?

▶ Brad Pitt. Eta beste batzuk, "para que desaparezcan".

● Noiz izkutatuko zinake betaurreko beltz batzuren atzean?

▶ Euzkixa dauanian.

● Zein animaliaren ikusmena gehituko zenioke zeureari?

▶ Arrano batena, goitxikan begiratziarren.

● Eta zein animaliaren begiak izan nahi zenituzke? ▶ Katuanak.

● Eguzkitarako lentilak noizko?

▶ UVA izpiengandik babesten dabenak badaoz.

● Maitemindu izan al zara inoiz itsu-itsuan?

▶ Bai. Gaztetan gehixo, baina "es inevitable". Oso sentimental naiz.

MIKEL CORNEJO



AIRE LIBREKO ZINEA

DOINUA:

Proporzio bat

Aire libreko zinea dugu

joan zen astean hasia.

Jendez beteta beti egoten da

gure plaza nagusia.

Ongarrin bidez iristen zaigu

zinemak duen grazia.

Ondo eginiko lanak duenez

aipamena merezia:

nire partetik eskerrik asko

ta zorion berezia.



AITZOL ARRIOLA

gr

DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN

XABIER
ILEAPAINDEGIA

Eskatu eguna eta ordua

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

EAJ, EA eta PSEk osatuko dute Gobernu Batzordea

Joan den asteartean izan zen plenoan, datozen lau urteetan izango den Gobernu Batzordea, bozeramaileen batzordea eta batzorde informatiboa osatuko duten kideak izendatu ziren bai eta alkateordeak ere. Alderdi politikoek beraien iritzia adierazi zuten alkateak dekretuz erabaki duen batzordeen osaketari buruz eta aurka botatu zuten. Halere, EAJ-PNV eta PSEren botuekin batzordeak onartu egin ziren. HBko zerrendaburua den Pedro Mendizabalek bere desadostasuna azaldu zuen, “PNVk HB erabat baztertu du ikuspuntu politiko ezberdina dugula eta biolentzia babesten dugula esaten baitu. Halere, PNVk tortura babesten du, presoan dispertsioa bultzatzen eta ezker abertzalearen aurka errepresioa ezartzen du”.

EB-IUko ordezkariak, Ausín-ek esan zuenez, “alderdi guztiek izan beharko lukete aukera komisioren bat izateko”. PPKoa bat etorri zen IUkoarekin, “alderdi ezberdinen arteko kolaborazioa egon beharko litzateke”. EAK, berriz, jakinarazi zuenez, “komisioetako lehendakaritzaren bat izaten saiatu gara baina negoziazioetan ez gara ados jarri. Bestalde, informazio zuzenik ez da bidaltzen eta plenoaren deiarekin batera baino ez da jasotzen eta hori diskriminazioa da”.



AITOR ZABALA

■ ■ EAJ-PNVk eskuratu ditu bost batzordetako lehendakaritzak eta PSEk batena

BATZORDE EZBERDINEN OSAKETA

GOBERNU BATZORDEA

- J. M. Oruesagasti (EAJ)
- Isaak Loyola (EAJ)
- Gotzon Arrieta (EAJ)
- Ales Arrieta (EA)
- Nieves Catarain (PSE)

BOZERAMAILEEN BATZORDEA

- Guillermo Garate (EAJ)
- Isaak Loyola (EAJ)
- Ales Arrieta (EA)
- Pedro Mendizabal (HB)
- Nieves Catarain (PSE)
- Juan Carlos Abián (PP)
- J. Ignacio Ausín (EB-IU)

GOBERNU BOTEREAK

- ALKATEA
- Guillermo Garate
- ALKATEORDEA
- J. M. Oruesagasti
2. ALKATEORDEA
- Isaak Loyola
3. ALKATEORDEA
- Gotzon Arrieta
4. ALKATEORDEA
- Nieves Catarain
5. ALKATEORDEA
- Ales Arrieta

BATZORDE INFORMATIBOAK

KONTU, HAZIENDA ETA EKONOMIA

- Isaak Loyola (EAJ)
- Guillermo Garate (EAJ)
- J. M. Oruesagasti (EAJ)
- Iñaki Oñederra (EAJ)
- Fermín Senosiain (EA)
- Itziar Goñi (EA)
- Pedro Mendizabal (HB)
- Nieves Catarain (PSE)
- Juan Carlos Abián (PP)
- J. Ignacio Ausín (EB-IU)

BARNE ETA PERTSONALA

- Nieves Catarain (PSE)
- J. M. Oruesagasti (EAJ)
- Issak Loyola (EAJ)
- Iñaki Oñederra (EAJ)
- Fermín Senosiain (EA)
- Itziar Goñi (EA)
- Pedro Mendizabal (HB)
- Juan Carlos Abián (PP)
- J. Ignacio Ausín (EB-IU)

GIZARTE PRESTAKUNTZA ETA OSASUNA

- Belen Elorza (EAJ)
- Ana Santolaya (EAJ)
- Gotzon Arrieta (EAJ)
- Ales Arrieta (EA)
- Itziar Goñi (EA)
- Juan Carlos Marcos (HB)
- J. Manuel Herrero (PSE)
- J. Ignacio Ausín (EB-IU)

HIRIGINTZA, UR, ARGIA, OBRA ETA INGURUGIROA

- J. M. Oruesagasti (EAJ)
- Guillermo Garate (EAJ)
- Belen Elorza (EAJ)
- Iñaki Oñederra (EAJ)
- Ales Arrieta (EA)
- Fermín Senosiain (EA)
- Jabí Agirre (HB)
- Juan Carlos Marcos (HB)
- J. Manuel Herrero (PSE)
- Juan Carlos Abián (PP)
- J. Ignacio Ausín (EB-IU)

KULTURA, IRAKASKUNTZA, KIROLA, JAI ETA GAZTERIA

- Ana Santolaya (EAJ)
- Belen Elorza (EAJ)
- Gotzon Arrieta (EAJ)
- Issak Loyola (EAJ)
- Ales Arrieta (EA)
- Fermín Senosiain (EA)
- Juan Carlos Marcos (HB)
- Jabí Agirre (HB)
- Juan Manuel Herrero (PSE)
- Juan Carlos Abián (PP)
- J. Ignacio Ausín (EB-IU)

EUSKARA

- Gotzon Arrieta (EAJ)
- Issak Loyola (EAJ)
- Ana Santolaya (EAJ)
- Ales Arrieta (EA)
- Itziar Goñi (EA)
- Pedro Mendizabal (HB)

Obren eraikuntzaren 4. fasea

- 1757.eko urtarrilaren 13an dorrea amaitutzat eman zuen Martin Carrera arkitektoak.
- Urte bereko otsailaren 28an Antonio Larrazarekin kontratua egin zen klaustroa bukatzeko. Larrazarrek Francisco Iberoren diseinua jarraitu zuen.
- Hamarkada honen bukaeran Juan Bautista Alberdi eibartarrak eta Mateo Oyak 50 eta 60 arrobotako bi eskiloi-kanpai egin zituzten.
- 1762an, Antonio eta Ignacio Larraza anaiek arkupeetako sarreraren atean alboetan harrizko lau jarleku eraiki zituzten arkupe nagusian zeuden eran. Toki horietako gangak indartzeko petxinak egin ziren.
- 1763ko urtarrilaren 4an Francisco Iberok obra batzuk berraztertu zituen klaustroetan eta elizaurreko zoladura egiteko planuak marraztu zituen. Urte horren hasieran Aiala bailarako (Araba) Pedro Agustin Menagara maisu igeltseroak, klaustroen gangen obrari hasera eman zion. 16 arku eta 14 ganga eraiki zituen. Ertz-ganga fajoi arkuekin estali ziren sabaiak, matxoien kapitelen ordena toskanoa jarraituz.
- 1764ko irailaren 22an Francisco Iberok gangak eta arkuak ikustatu zituen eta onarpena eman.
- Balkoia 1773. urteko ekainerako eraiki zen. Probintziako Batzar Nagusiak Elgoibarren bildu behar zirela eta, parrokiako dorrea eder

erakutsi nahi zuten, elgoibartarren ispilu izan zedin. Balkoiaren burdinsarearen egilea Gregorio Agirre izan zen. Agirrek egin zituen, baita ere, dorre puntako bola, gurutzea eta haizorratza.

- San Bartolome parrokiako azken eraikuntza lana sakristia berria izan zen eta Francisco Iberok diseinatu zuen bai eta zuzendu ere.

- 1777. urtean eliza bukatutzat eman zen. Halere, aldare nagusiko gurutzadura alboko eta sakristiako erretaulak 1791an egin ziren.




PELLO ARRIETA

Jose Mari Igartua (1916-1963)



- 1916ko otsailaren 25ean jaio zen.
- 7 urte zituenean solfeoa ikasten hasi zen Ignacio Bereziartuarekin. Berehala, Parrokiako abesbatzean sartu zen tripleen taldean.
- 10 urterekin saxofoia ikasten hasi zen.
- 12 urtekin Musika Bandan sartu zen.
- Ihauterietan ateratzen zen "Estudiantina" bandako partaide ere izan zen. Jasotzen zuten dirua beharrean zeudenei ematen zieten.
- Izaera alaieko gizona zen, guztien adiskide, baikorra eta besteei on egitea atsegin zuen.
- Kirola gustatzen zitzaion, batez ere pilota eta futbola. C.D. Elgoibarren erdilaria izan zen.
- Lanbidez torneroa zen. Estarta y Ecenarro enpresan enkargatua izan zen tornoen sailean. 1958an "Urrezko liburua" eman zioten urtean zehar enpresarentzat lortu zituen aurrerapenengatik.
- 1944an Juanita Etxaberekin ezkondu eta sei seme-alaba izan zituzten.
- 1963an hil zen 45 urte zituela.



San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49



Cordon, Vilarchao, c.b.
DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

MOTZAK

Kirol kanpainako astebukaerako irteerak

Udalak antolatzen duen udako kirol kanpainako astebukaerako irteeretan izena eman daiteke oraindik. Hiru irteera daude aukeran. Asteburu honetan Urbasa zaldiz ezagutzeko irteera izango da, eta uztail osoko astebukaeretan puenting-a egiteko aukera izango da. Oñatiko Araotz bailaran burutzen da eta puenting egin aurretik 7 km.ko haitzulo bat zeharkatzen da. Azken irteeran, irailaren 16an eta 17an, Ebro ibaian rafting-a egiteko aukera izango da. Izena emateko Udala Kirol Zerbitzura zuzendu edo 74 44 15 zenbakira deitu.

Txirrindularitza lasterketa Mendaron

Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatuta, X. Txirrindulari Sari Nagusia burutuko da larunbatean, arratsaldeko 15,45etan. Nazio mailako lasterketa da, jubentilatzen, eta Elgoibarko Lagun Taldeko txirrindulariak ezezik, Euskal Herritik eta Estatutik etorritakoak ere izango dira. Irteera eta helmuga Mendaron izango dira eta ibilbide osoa 82 km.koa da. Hiru mendate igoko dituzte, Itziar, Lastur eta Kalbarioa eta Elgoibartik bi aldiz igaroko dira: arratsaldeko 16,45etan lehenengo eta 17,15etan



Xabier Oliveira:

"Mendiko bizikletan ibiltzeko mendia gustatu behar zaizu"

■ **Zer moduz ibili zinen mountain-bike trabesian?** - Uste baino hobeto. Gogor xamarra izan zen, igo eta jaitsi, bide laurik bat ere ez. Maila oso altua izan zen, ermuarrak oso onak dira.

■ **Errepideko ala mendiko bizikleta ezagutu zenuen lehenago?** - Mendikoa, baina errepidean ibiltzen nintzen. Orain 7 urte, denak hasten diren bezala hasi nintzen ni ere, Debara hondartzara, San Migelera... Gero lagun batekin mendia ezagutzen hasi nintzen.

■ **Ba al dago alderik?** - Bizikletaz gain, mendia ere gustatzen zait. Errepidean kotxeak zaindu behar dituzu, ia euren aurka ibili. Mendian ere badaude arriskuak, aldapak jaitzerakoan batez ere.

■ **Nolako txirridularitza da mendikoa?** - Kilometro gutxi baina aldapak gogorak dira, lokatza dago, eta beste teknika mota bat behar da: aldapa beheara zoazenean zuloak eta harriak baztertzen jakitea...

■ **Nondik egiten dituzue trabesiak?** - Oinezkoen bideak jarraitzen ditugu. Normalean Kalamuan, Hirukurutzetan, Eibarren Txontatik gora etab...

■ **Orain monitore ere bazabiltza.**



- Kirol kanpainako mountain-bike ikastaroan. Txikien ardura daukat eta pasiaran ibiltzen gara batez ere, San Lorentzo aldera ... Kanbioak aldatzen eta horrelako gauza simpleak irakasten dizkiegu.

■ **Txirrindularitza kirol oso gogorra dela diote.** - Gogorra da baina ni afizionatu modura ibiltzen naiz eta gogoia daukadanean juergak egiten ditut.

■ **Babegarriak beharrezkoak dira?** - Derrigorrez ez, baina kome ni da kaskoa eta guanteak jaztea. Izerdirako guanteak onak dira eta erorketentzako kaskoa garrantzitsua. Betaurrekoak ere ondo datoz, haizearentzat, euliak ez sartzeko...

■ **Mendizalea eta txirrindularia?** - Bietatik piska bat. Elkarren arteko konbinazioa da.

■ **Zer moduz mol-datuko litzateke Indurain mendian?** - Kualitadedun jendea edozein kiroletan mol-datzen da ondo, halere handi xamarra da. Indar izugarria dauka eta seguru ondo ibiliko litzatekeela.

- Adina: 19
- Bizikletaren marka: Muddy Fox
- Mailotarentzako kolore bat: kolore biziak
- Txirrindulari bat: Jhon Tomac

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak	Enbutidoak
Baserriko ogia	Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecnarro, 1 ☎ 74 33 92

TXARRIDUNA

PURINA BANATZAILEA

Animalientzat eta nekazaritzarako behar duzun guztia daukagu. Zatoz!!

P. Muguruza, 1. ☎ 74 15 97

Ikas-Xerox Espainiako bosgarren geratu da

San Bartolome Ikastolako 8. mailako Ikas-Xerox taldeak Alicanten jokatu zen Eskolarteko Espainiako Eskubaloi Txapelketan bosgarren postua lortu zuen. Txapelketan Espainiako 17 talderik onenak aritu ziren lehian, elgoibartarrak fin ibili zirelarik.

Ikas-Xerox taldeak bosgarren postua lortu duen arren, emaitza hobea eskuratzeko aukera izango zukeen talde berean Espainiako txapeldun izan zen Alicanteko taldea tokatu izan ez balitzaio. Lehendabiziko partiduetan ederki aritu ziren Igor Lizarralde eta Zigor Esnaolak entrenatzen dituzten taldeko mutikoak. Kanariarren aurkako norgehiagokan, elgoibartarrak gailendu ziren 15-9 eta 16-8 emaitzaz. Hirugarren partiduan, Alicantekoak izan zituzten aurrez aurre.



■ ■ Espainiako bosgarren geratzeaz gain, lagun eta toki berriak ezagutu dituzte.

Saiatu ziren arren, elgoibartarrek ezin izan zioten markagailuari bueltarik eman, Alicantekoek erabateko nagusitasuna erakutsi baitzuten. Laugarren partiduan, Melillako taldearen aurka errebantxa hartzeko aukera izan zuten, Ikastolako mutikoek 15-9 irabazi baitzuten. Bosga-

rren eta seigarren posturako partiduan 14-11 irabazi zuten herritarrek, azkenik Espainiako bosgarren onenak direla erakutsiaz. Gainontzean, esperientzia izugarri aberasgarria izan dela adierazi digute, baita lagun eta toki berriak ezagutzeko aukera izan dutela ere.

Federazioaren sariak

Elgoibarko K. E. Eskubaloi Taldekoek Federazioak emandako sariak jasotzen izan ziren Donostian duela pare bat aste. Bost sari jaso zituzten. Ekitaldiaren ondoren ateratako argazkian ikus ditzakegu eskubaloi taldeko elgoibartarrak. Ezkerrean, aurrean, Iker Soraluze,

kadete mutiletan Gipuzkoako goleatzailerik onenari emandako saria eusten. Ilara berean oroigarria esku artean, Irma Aldazabal, kadete nesketan Gipuzkoako goleatzailerik onena, eta alboan Jon Zubiaurre, jubenil mutiletakoa Gipuzkoako goleatzailerik onena hau ere.



Hiru sari hauez gain, besterik ere merezi izan zuten elgoibartarrek. Atzean ezkerrean, Patxi Aranbarrik, jubenilen entrenatzaileak, Gipuzkoako bigarren talde onenari emandako saria jaso zuen. Azkenik, kadete neskek Gipuzkoako txapeldun izateaz gain, Federazioko Kopa ere irabazi zuten. Argazkiaren eskuin aldean, kopa eskuan duela, taldeko ordezkari gisa, Patricia Rodriguez. Eskubaloi Taldeko ekipoek denboraldi ezin hobea burutu dute, aipatutako lorpen hauez gain, kadete mutilak ere, Gipuzkoako laugarren izan baitira.

Jose Aizpuru gaztea, arrantza txapeldun bigarren aldiz

Josu Aizpuru 10 urteko elgoibartar gazteak, pasaden igandean Beduako errekan La union Elkartek antolatutako Arrantza Txapelketa irabazi zuen. Bigarren aldiz segidan izan da txapeldun Josu Aizpuru, iaz ere berak lortu baitzuen arrain kilo gehien hartzea. Bazkideentzako arrantza txapelketan hamazazpi partaide izan ziren, harraitutako arrain kopurua inoiz

baino kaskarragoa izan zelarik. Josu Aizpuru sailkapen nagusiko buru izateaz gain, infantiletan ere lehen postuan sailkatu zen. Tamaina handieneko arraina Todor Calvok hartutako 500 gr.ko pieza izan zen.

Saikapena:

- 1- Josu Aizpuru (1.410 gr.)
- 2- Todor Calvo (930 gr.)
- 3- Iñaki Badiola (840 gr.)



KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK



Mendiko bizikleta

trabesian 44 txirrindularik parte hartu zuten joan den igandean. Udal Kirol Zerbitzuak eta Morkaiko mendizale Elkartek prestaturiko 23 kilometro inguruko ibilbidea betetzeko asmoz atera ziren txirrindulariak Mintxetatik. Herriko mendiak igo eta jaitsi ondoren plot eginda iritsi ziren gehienak Mintxetan bertan jarri zen helmugara, goiz-goizetik bero-sargori ageri baitzen eguna. Saikapenik egon ez zen arren, ermuarrak izan ziren Mintxetara heltzen lehenak, mendiko bizikletan bailarako puntakoenak direla erakutsiaz.

AGENDA

MINTXETAKO I. FUTBOL TXAPELKETA

Larunbata 15
11,00 Finalerdiak

Igandea 16
11,00 Finalak

EMAITZAK

MINTXETAKO I. FUTBOL TXAPELKETA

A TALDEA: Pedruskos 9 - Spartak Pitxote 1
Xare 2 - Lagun Onak 0

B TALDEA: Chapuzas 1 - Chemolino Rojo 3
Gruas Pana 1 - Jack Daniels 1
Txirristaka 8 - Patxi 0

C TALDEA: Karkis 1 - Orako 4
Astigarraga 2 - Lagun Toki 3
Tongo 5 - Otro Mas 1

Himalayako argazkien erakusketa Kultur Etxean

Gaurtik aurrera, hilak 14, Joseph Esclusa kataluiniarraren argazki erakusketa osatzen duten 35 erretratu ikusgai izango dira Kultur Etxean hilaren 29ra arte. Esclusak Germain School of Photography zentruan eta New York-eko Center of Photography ezagunean ikasi zuen. Bartzelonako 43 urteko argazkilaria hau Institut De Estudios Fotografics izeneko eskola ezaguneko irakaslea da 1986tik eta

Vision Agentziako kide duela bi urtetik. Arratsaldeko 7etan izango den inaugurazio ekitaldian egongo da argazkilaria herriko agintariek batera. Bertan Himalayan egindako lanaren gorabeherak azalduko ditu. Erakusketa Ongarri Argazkilaritza Taldeak antolatutakoa da. Abuztuaren 22an, berriz, Elgoibarren bizi den beste kataluniar baten erakusketa izango da Kultur Etxean, Esmeralda Zapparoli argazkilaria, alegia.


Himalaya, zuri-beltzez

Joseph Esclusak (1952, Bartzelona) "Gentes del Himalaya" izeneko dokumentazio etnografikoa osatzen duten zuri-beltzeko 35 argazki ekarri ditu Kultur Etxera. 1989. urtetik hona, Indiako iparraldean eta Himalayako mendikatearen ipar-ekialdean dagoen Ladakh izeneko erresuma zaharrean ateratakoak dira.

Kazetaritza-argazkilaritza tradizionalen arauak jarraiki, "trabarik egin gabe begiratu" tradizio antropologikoa lan eredu izanik, Joseph Esclusak, Ladakh-eko biztanleen eguneroko bizimodua erakusten du zuri-beltz bikainaren bidez. Kolore ederretako argazkietatik ihes egiten duen argazkilaria da, bidaiari ikuspegia oztopa dezaketen elementuak baztertzeko asmoz. Umeak argazki-kamararekin eta "poseak" jartzen jolasten diharduten heinean, helduak kamara egongo ez balitz moduan jokatu dute.

Himalayako ohiturak eta aintzinako baloreak igortzeko eta gordetzeko ahalegina somatzen da bere argazkietan. Bizimodua erretratatzekoan, mendebaldeko gizartearen eragina gero eta nabarmenagoa dela ikustean, Himalayako etnia eta tradizio ezberdinen aldeko jarrera hartzen du modu konzientean, haien nortasun ezaugarrien defentsa aldarrikatuz.

Jesus Mari Sarasua
Ongarri Argazkilaritza Taldeko kidea



■ ■ Himalayari buruzko 35 erretratu izango dira ikusgai.


250 lagunentzako jantokia

Ezkontza, bataio eta jaunartzeak

Karta eta eguneko menua

Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe!

Mutrikuko jaietan bisita gaitzazu!



Kalbarioa

DEBA

Zer moduz **San Ferminetan?**



Ezkurra

Nerea

- **Noiz joan zinen?**
- Zapatu arratsaldian, niki zurixa eta zapi gorrixa ipini eta Iruñera jun ginan. Aparkau, self-service batian afaldu eta 11,30etan, alde zaharrera.
- **Lehenengo aldia zen joaten zinela?**
- Bai. Kuriosidadia nakan ezautzeko.
- **Eta espero zenuena al da?**
- Desmadre gehixo espero naban. Igual segun eta zein zonatan ibiltzen zeran diferentia da. Gu ibili ginan zonan nere edadetik gorakuk zian gehixenak eta normalian gaztetxuak dia gehixen desfasatzen diazenak.
- **Jende asko?**
- Bai, asko, baina bafliak ipintzen ditzuzte tabernetan kanpo aldera eta dantza itxeko moduan egoten da. Ambientia kaliao dao.
- **Ligatzeko aukerak?**
- Argi dao han nahi dabanak oso erretz ligatzen dabala. Edozein etortzen jatzu, besotik heldu eta dantzan hasten da zurekin, ez dizu aukerarik ematen ezetz esateko.
- **Eta prezio aldetik?**
- Oso karua iruditu jatan. Sartu ginan lehenengo tabernan hiru zuritogatik 750 pta. kobratu ziguten.
- **Zein hitzekin definituko zenituzke San Ferminak?**
- Alaitasuna, jendiak dakan disposiziua ondo pasatzeko.
- **Bueltatzeko asmorik?**
- Gustauko jatan baina pare bat egunetarako, jaixak egunez eta gauez ezautzeko.



Uztailaren 7an jende guztiak daki zein santuren eguna ospatzen den, San Fermin. Mundu mailan ezagunak dira Nafarroako hiriburuko jaiak eta punta batetik eta bestetik hurreratzen da urtero makina bat atzerritar. Horietaz gain, gertuagotik ere bada joaten denik eta elgoibartarrak ere ezin kanpoan utzi. Gaztaroako orrialde honetan, asteburuan Iruñean izan ziren bi pertsonak kontatu dizkigutenak azalduko dizkizuegu. Bi pertsona eta bi plan ezberdin. Gauez ibili zen bata eta egunez bestea. San Fermin jaien bi aurpegiak.

Maria Jesus Iranzo

- **Larunbat goizean joan zineten.**
- Bai, goizeko 5etan urten ginan Elgoibartik. Entzierrua zezen plazan ikusi gendun, rebentan erositxa entradia. Txaranga bat zauan erdixan eta jende guztia dantzan, abesten...Kriston ambientia zauan!
- **Eta ondoren armozatzera.**
- Bai, txokolatia txurruekin. Arratsaldian Jota kontzertu bat ikustera jun ginan, deskantsatze aldera...
- **Korridan izan al zineten?**
- Ez, sarrerarik ez zauan eta rebentan oso karuak zian. Baina peña guztien desfilia ikusi gendun, danak zezen plazara zixezenian, kalimotxoz betetako baldiekin...
- **Eta gauean?**
- Su artifizialak ikusi eta 11.30ak aldera jende mordo bat zauan, gu ere kantzauta... Eta bueltatu ein ginan.
- **Zerk harritu zintuen?**
- Jendiak dakan erreztasuna edozein tokitan eta edozein momentutan lo hartzeko. Eta baitxa ere zelako erretz garbitzen daben dana, kontuan eukitxa zelan egoten dan haura! Zezenekin arau batzuk daude eta hoi artian ezin jako jo zezenari ez eta heldu ere. Zezen plazan batek zezenari lepotik heldu zion eta jendia tipua jotzen hasi zan eta gero zezen plazan zauan jende guztia tipuari kristonak esaten eta azkenian alde eitxeko esaten. Jun egin bihar izan zan.
- **Berriz ere joatekotan?**
- Bai. Datorren urtian plan berdina egingo naban, egunez ere politxa da eta gauez jutekotan astian zihar jungo nitzan, lasaixo egoten da eta.



Salerosketak

OMEGA markako ERREPIDE BIZIKLETA BAT saltzen dut. Egoera onean.

☎ 74 01 71 Patxi

Egoera onean dagoen bigarren eskuko CANPING DENDA FAMILIARRA edo GURPILDUN DENDA erosiko nuke.

☎ 7405 37 Mila

Bigarren eskuko VESPA 200 edo antzerako motorra erosiko nuke.

☎ 74 40 62 Agustin

Ohe egiten diren 3 sofa, terraza mahai bat eta 4 aulki fundekin saltzen ditut. Aukera paregabe!

☎ 74 21 20 - 74 23 98

Soziedaderako bigarren eskuko SUKALDE ELEKTRIKO BAT salgai dago. 8 plaka + laba. Neurriak: 190 x 0,90 x 0,85

☎ 74 23 02 Juan Cruz

FORD FIESTA SS-N bat saltzen dut. Egoera onean.

☎ 58 40 01 (Koldo) gaueko 9etatik aurrera

Etxebizitzak

Lau pertsonantzako PISU BAT ALOKATU nahi genuke irailetik aurrera.

☎ 65 38 76 Aloña

Alcoceber-en APARTAMENTU BAT daukat alokatzeko (irailean)

☎ 74 22 08

Etxe bat SALTZEN dut ZARAUTZEN. Amueblatua.

☎ 78 19 50

LOGELA BAT ALOKATZEN DUT.

☎ 74 24 06

Apartamentu bat alokatzen dut ALCOCEBERen.

☎ 74 21 86

Lana

FRESISTA BAT BEHAR DA. Baldintzak: FP II edo berdintsua eta euskara.

☎ 74 12 97 - 74 06 64

NESKA ESKALDUN BAT behar dugu irailetik aurrera etxeko lanak egiteko eta bi ume zaintzeko.

☎ 74 38 41 (Pili)

Deitu 13,00 - 16,00 eta 20,00tik aurrera.

Gizonezko bat behar da kristalak garbitzeko.

☎ 74 26 77 Setatik aurrera deitu "Kalamua Coop."

Emakume euskaldunak etxeko eta sukaldeko LANAK EGIN EDO NAGUSIAK ZAINDUKO lituzke. 17 urteko esperientzia eta kotxeko karneta.

☎ 74 23 30 (Eusebi)

TITULUDUN ERIZAIN EUSKALDUNA, etxeetara erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.

☎ 74 02 33 Marta Diego Arrieta (Erizain diplomatua)

Partikularrak

Hezkuntza Zientzietan lizentziatuak eta 6 urteko esperientziarekin OHO eta REMeko klase partikularrak ematen ditu. Euskaraz eta erdaraz.

☎ 74 39 24 Maite

SOLFEOKO KLASEAK emango ditut uztailean. Maila guztiak.

☎ 74 24 95 Ainara

Tituludun irakasleak PIANOKO KLASEAK ematen ditu. Maila guztiak. Azterketak prestatzeko, lana aurreratzeko.

☎ 74 04 11

Enpresa zientzietan lizentziatuak KONTABILITATEKO INTENTSIBOA emango du uztailean. Maila guztiak. Talde mugatuak.

☎ 74 03 95

Bestelakoak

Aterpen riñonera bat GILTZ BATZUEKIN azaldu da.

☎ 74 25 95

Elgoibarren lanean diharduen injineruak FAMILIA EUSKALDUN BATEAN astelehenetik ostiralera bitartean BIZI NAHI DU. Lo egin, arropak garbitu eta otorduak..

☎ 74 33 04

Donostian pisua osatzeko 2 pertsona behar dira.

☎ 47 02 32 Miren

Caritas-ek OHE bat eta SUKALDERAKO ARMAIRU bat behar du.

☎ 74 15 09 / 74 12 57

Neska gazte kuadrila batek San Bartolome jaietarako LOKAL MERKE BAT ALOKATUko luke.

☎ 74 32 56

Okerreko aterkia hartu nuen King-Kong-eko jangelan edo Gorbean. Neurea urdin marinoa da eta okerrekoa marroia.

☎ 74 01 73

Agurrak

Itziar:
Zorionak ! Ondo pasa zure urtegunean eta zorionak baita Eusebiori ere.
Elgoibarko lagunak

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikiroldegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri Eskola74 08 79
I.M.H.74 41 32
Instituta74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 22 67
El Correo Español...74 10 82
Egin.....11 84 21
Deia74 11 57
Zazpiki74 34 74

14 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

P.M. Urruzuno 8an

20,00 C.D. ELGOIBAR FUTBOL
TALDEAREN ASANBLADA

✓ Kultur Etxean

22,15 AIRE LIBREKO ZINEA

"Speed"

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

15 LARUNBATA

22,15 AIRE LIBREKO ZINEA

"Haur lehoia"

20 OSTEGUNA

20,00 GESTOREN ASANBLADA

Gaia: Jaietako txoznak

✓ Kimetz elkartean

21 OSTIRALA

22,15 AIRE LIBREKO ZINEA

"La máscara"


✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

A I R E

L I B R E K O

Z I N E A



"Speed"

Zuzendaria: Jan De Bont
Antzezleak: Keanu Reeves,
Sandra Bullock, Dennis Hopper.

Los Angeles-eko polizia batek
eztanda egin dezakeen autobus
batean doazen bidaiariak salbatu
behar ditu. Bonbak eta detonadoreak sakonki ezagutzen dituen gaizkile
batek jarri du autobuseko bonba, eta 50 mila orduko baino abiadura
motelagoan badoa, eztanda egingo du. Bidaiari batek autobuseko
gidaritza hartu beharko du gidariak ezbeharra izan baitu.



Haur lehoia

Zuzendaria: Patrick Grandperret.
Antzeleak: Mathurin Sinze,
Sophie-Veronique Toue,
Souleyman Koly.

Animaliak Afrikako oihaneko
agintariak dira. Erregetza
ezberdinetan banatua dago oiñana. Baoule izeneko herrialdean Ouara
lehoi emeak agintzen du animalia guztien gainetik eta sabanan bizi diren
biztanleen gainetik ere bai. Lehoi emea haurdun dago eta Moko
buruzagiaren emaztea ere bai. Denek bikiak izango dituztela uste arren,
ez da hala izango.



txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
15, larunbata:	Bidasolo	Bidasolo
16, igandea:	Bidasolo	Bidasolo
17, astelehena:	Etxeberría	Etxeberría
18, astearte:	Etxeberría	Etxeberría
19, asteazkena:	Etxeberría	Etxeberría
20, osteguna:	Etxeberría	Etxeberría
21, ostirala:	Etxeberría	Etxeberría

OKINDEGIA:

16, igandea: IDARRAGA
EIZAGIRRE

MENDAROKO SANTANA JAIK

15, LARUNBATA

15,45: Mendaroko X.

Txirrindulari Lasterketa

16, IGANDEA

11,00: Kalejira txistulari eta
dantzariekin

12,00: Meza Nagusia Goñati
pilotalekuan

Ondoren, Euskal Jaia:
dantzariak, aizkolariak etab.

14,30: Bazkaria Aizpe
elkartean

17,00: Pilota Jaialdia Goñati
pilotalekuan

19, ASTEAZKENA

21,00: Diapositiba emanaldia
Kultur Etxean

.20, osteguna

21,00: Diapositiba emanaldia
Kultur Etxean.



Sukalde eta altzari erakusketa ikusgarria 100 logelatik gora ikusgai

Aukera zabala egongela, logela eta tresilloetan.

Klasikoak, modernoak, errustikoak eta jubenilak.

Hiru solairuko 3.000 m²ko erakusketa.

ALTZARIAK


Itziar gaina - Tel. 19 91 00 - DEBA

COLCHON

Lowy

Larunbat arratsaldean
IREKITA

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI" Edari Banatzailea



GURELESA



SANTA ANA 41. ☎ 74 10 41 - 74 11 32



BIRE

ELEKTRAGAILUAK

Ubitarte 3 - Tel. 74 14 87 - ELGOIBAR

UDAKO PREZIO
BEREZIAK

PIONEER K.E. 1.900
Karatula estraiblea
26.800 pta.
BEZa barne



IRRATI KASETAK
BOZGARAILUAK

